

4/25

irizpena

genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektuari buruzkoa. Laguntza hori Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan dago aurreikusita

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko ekainaren 27a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 4/25

I.- AURREKARIAK

2025eko ekainaren 9an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren idazkia sartu zen; horren bidez, txostena eskatu zuen honako honi buruz: *“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua. Laguntza hori Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan dago aurreikusita”*, bat etorritik Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1. artikulua arabera, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako eta abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretuak garatutako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura arautzea. Aipatutako laguntza ez da dirulaguntza eta genero-indarkeriaren biktima diren eta EAEn bizi diren emakumeei zuzenduta dago, baldin eta baliabide ekonomiko nahikorik ez badute eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak badituzte, haien eskubide ekonomikoak bermatzeko eta gizarteratzen laguntzeko.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaizen Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaizkien eta horiek, aldi berean, zegokion Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko ekainaren 24an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen Batzordearen Osoko Bilkuran lantzeko. Han aho batez onartu zen

II.- EDUKIA

“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua. Laguntza hori Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan dago aurreikusita” izeneko dokumentuak hauexek biltzen ditu: zioen azalpena, hamazazpi artikulua, xedapen gehigarri bat, iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Zioen azalpenak dioenez, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan arautzen da genero-indarkeriaren biktima diren eta baliabide ekonomikorik ez duten emakumeentzako laguntza ekonomikoa, baldin eta uste bada, adinagatik, prestakuntza orokorra edo espezializatua ez izateagatik eta beste gizarte-inguruabar batzuegatik, zailtasun bereziak izango dituztela enplegua lortzeko. Eskubide subjektibo hori aitortzearen xedea da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabide ekonomikoak bermatzea, haien gizarteratzea errazteko.

Zehazki, dirulaguntza biktimaren familia-erantzukizunetara egokituko da. Haren diru-sarrera eza aldi baterako arintzea du helburu, erasotzailearengandik independizatzeko eta haren egoera egonkortzeko ahalbidetuko dioten baliabide ekonomikoak emateko.

Abenduaren 2ko 1452/2005 Errege Dekretuak garatu zuen 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan ezarritako laguntza ekonomikoa, eta honako hauek jasotzen ditu: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek laguntzaren onuradun izateko bete behar dituzten baldintzak, horiek egiaztatzeko modua, laguntzak izapidetzeko eta emateko organo eskudunak eta, hala badagokio, laguntzak itzultzea. Era berean, 8. artikuluan aurreikusten da gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duten administrazioek zaindu eta bermatuko dutela prozeduraren fase guztiak ahalik eta azkarren eta sinpleen egitea.

Aurreikuspen horiei jarraikiz, hurrengo Aginduak onetsi ziren: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2007ko azaroaren 29koa; Herrizaingo sailburuaren 2010eko martxoaren 3koa eta 2011ko maiatzaren 30koa; eta Enplegu eta Gizarte Politiken sailburuaren 2014ko urriaren 29koa. Aginduak betez, Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezarri zen, Genero-indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Horregatik, dekretu honek 2014ko urriaren 29ko Agindua ordeztzen du, eta aipatutako agindua onetsi zenetik izandako lege-aldaketetara egokitzen da. Besteak beste, honako hauek egokitu dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko Presako Neurrien abuztuaren 3ko 9/2018 Errege Lege Dekretua (1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua 5. apartatua aldatzen duena); sexu-indarkerien biktimentzako dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 9ko 664/2024 Errege Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa (1452/2005 Errege Dekretuaren 2. artikulua eta 8. artikulua aldatzen dituen), eta Emakumeen eta Gizonen Ordezkaritza Parekide eta Presentzia Orekatuari buruzko abuztuaren 1eko 2/2024 Lege Organikoaren azken xedapenetako zortzigarrena (Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 2.4 artikulua i) apartatua aldatzen duena, laguntza horiek dirulaguntzen lege-eremutik kanpo utzita).

III.- GOGOETA OROKORRAK

"Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua" aurkeztu zaigu azter dezagun. Proiektu horren helburua, haren artikuluetan adierazten denez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eskubide ekonomikoak bermatzea da EAEn bizi badira, baliabide ekonomiko nahikorik ez badute eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak badituzte, haien gizarteratzea errazteko helburuarekin.

Positiboki baloratzen dugu ekimen hori, gure erkidegoan 1/2004 Lege Organikoa eta hura garatzeko araudia aplikatuz, bereziki zaurgarria den kolektibo baten baldintzak hobetzea bilatzen duena, hau da, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeena eta haien ardurapeko senideena. Emakume horiek, askotan, beren adina, prestakuntzarik eza eta beste inguruabar pertsonal batzuk direla eta, zailtasun handiak izaten dituzte gizarteratzea lortzeko enplegu baten bidez, eta dekretu horretan arautzen den laguntzak bizitza independente baterako trantsizioak erraztu ditzake, erasotzaileengandik salbu.

Hala ere, aurkezten zaigun Dekretuak gure erkidegoan Estatuko araudia garatzen duela onartuta, uste dugu legegileak aukera duela horrelako laguntza garrantzitsuak jasotzeko **baldintzak hobetzeko**.

Zehazki, gure ustez **berrikus litezkeen hiru baldintza** aipatu nahi ditugu, genero-indarkeriaren biktima diren emakume gehiagok jaso ahal izan ditzaten laguntzak.

- **Sei hilabeteko antzinatasuneko erroldatzea.** 2.1.a) artikulua xedatzen duenez, Dekretu honetan arautzen den laguntza ekonomikoaren onuradun izateko, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskaera egiten duten egunean EAEn erroldatuta egon beharko dute, sei hilabeteko antzinatasunarekin.

Baldintza hori oztopo esanguratsua izan daiteke egoera bereziki zaurgarrian dauden emakumeentzat. Kasu askotan, emakume horiek irregulartasun administratiboko egoeran daude, errentamendu formaleko kontraturik gabe edo bizitegi-testuinguru prekarioetan, eta horrek zaildu egiten du haien erroldatzea, nahiz

eta benetan Erkidegoan bizi.

Izan ere, betekizun horrek kanpoan utz ditzake 1/2004 Lege Organikoaren printzipio gidarietako bat bermatzen duen eskubide subjektibo gisa ulertutako laguntza behar duten emakumeak, hau da, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako baliabide ekonomikoak bermatzea, haien gizarteratzea errazteko. Gainera, laguntza hori beste autonomia-erkidego batzuetan jasotzeko baldintzak ikusita, egiaztatu dugu ez dela eskatzen erroldatzeko gutxieneko denbora bat, dagokion autonomia-erkidegoan bizitzea baino ez.

Horregatik, berariazko oharretan azalduko dugunez, gure proposamena da emakume horiek babestuta egotea, eskaera egiten den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta benetan bizitzea eskatuta, baina **gutxieneko antzintasun baldintzarik gabe**.

- **Errenten muga Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 75 izatea.** 2.1.b) artikulua xedatzen duenez, laguntzak jasotzeko, ezinbestekoa izango da, hileko zenbaketan, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen errentarik ez izatea, aparteko 2 ordainsarien zati proportzionala alde batera utzita.

Gure ustez, LGS langileen gutxieneko soldata-bermea da, eta horren azpiko edozein zenbateko prekarietate-eta pobrezia-egoerekin lotzen da; beraz, baldintza horretarako muga ez litzateke % 75 izan behar, **haren % 100** baizik, eta hala gomendatuko dugu berariazko oharretan.

- **Erasotzailearekin bizikidetzarik edo bikote-harremanik ez izatea.** 2.1.f) artikulua erasotzailearekin elkarrekin bizi ez izatea edo bikote-harremanik ez izatea ezartzen du baldintza gisa. Eskakizun agiriren bat aurkeztuz egiaztatu behar da, hala nola banantze- edo dibortzio-demanda, haren izapidetzea, edo izatezko Bikoteen Erregistroko ezeztapena edo ezerezteko eskaera (ikus 10.1.f). Oso onartuta dago, ordea, genero-indarkeriak eragindako hainbat inguruabarrek –hala nola beldurrak, erruak, mendekotasun ekonomiko eta emozionalak, laguntza-sarerik ezak edo prozesu judizialen konplexutasunak– zaildu egiten dutela biktimek harremana hausteko duten gaitasuna.

Gure ustez, bizikidetzaren haustura formala aurretiko baldintza gisa ezartzeak babes-sistematik kanpo utz ditzake gainerako baldintzak bete arren, tratatu txarren ondorioengatik, hain zuzen ere, urrats hori eman ezin izan duten emakumeak. Bizikidetzak indarkeriaren dinamika –indarkeria ekonomikoa barne– iraunaraz dezakeela pentsatzea arrazoizkoa bada ere, **betekizun hori egiaztatzeko modua berrikustea iradokitzen da**, laguntzen funtsezko helburua ez oztopatzeke: emakumeen autonomia ekonomikoa eta segurtasuna bermatzea.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

2. artikulua. Eskatzaileek bete beharreko baldintzak

Artikulu horretako **1.a) apartatuak** xedatzen duenez, Dekretu honetan arautzen den laguntza ekonomikoaren onuradun izateko, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek” *eskaera egiten duten egunean EAEn erroldatuta egon beharko dute, sei hilabeteko antzintasunarekin*”.

Lehenik eta behin, erroldan sei hilabeteko antzintasuna eskatzeari buruzko ohar orokorretan azalduko da berresten dugu.

Halaber, kolektiboaren zaugarritasun berezia kontuan hartuta, proposatzen dugu, genero-indarkeriaren biktima den emakumea administrazio-egoera irregularrean badago, arau horretan arautzen diren laguntzak

eskuratu ahal izatea, **osasun-sisteman erregistratuta** dagoela egiaztatuz, osasun-txartel indibidualaren (OTI) bidez.

Azaldutakoa kontuan hartuta, 1.a) apartatua honela geratzea proposatzen dugu:

1.- Dirulaguntzaren onuradun izan daitezke emakume guztiak, adinez nagusiak edo adingabe emantzipatuak direnak, baldin eta, laguntza eskatzen dutenean, honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Eskabidea egiten den egunean Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea edo, egoera administratibo irregularrean egonez gero, osasun-zerbitzuetan erregistratuta egotea (Osasun Txartel Indibiduala izatea).

Bigarrenik, artikuluko horren **1.b) apartatuak** baldintza hau ezartzen du: *“Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren %75etik gorako errentarik ez izatea hileko, aparteko 2 ordainsarien zati proportzionala kenduta, dekretu honen 4. artikuluan aurreikusitako moduan”.*

Ohar orokorretan azaldutakoa errepikatuz, apartatu hori honela idatzita geratzeko eskatzen da:

“ b) Indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldatarik gorako errentarik ez izatea hileko, aparteko 2 ordainsarien zati proportzionala kenduta, dekretu honen 4. artikuluan aurreikusitako moduan”.

Eta, ildo beretik, **4.2 artikulua** (Errentak zehaztea) **aldatzeko eskatzen dugu**, hileko errentaren muga kalkulatzeko, eskatzaileak familia-erantzukizunak baditu.

10. artikulua. Dokumentazioa

Lehenik eta behin, eta artikuluko horren balorazio orokor gisa, honako hau ikusten dugu: interesdunak zenbait dokumentu aurkezteko eskatzen da, eta, kasu batzuetan, dokumentu horiek beste administrazio publiko batzuetan eskumena duen organoak bil ditzake.

Gure ustez, garrantzitsua da laguntza horiek eskatzeko bidea erraztea, ahalik eta emakume gehienek eskura ditzaten, eskakizun burokratikoak oztopo izan gabe.

Bigarrenik, berriro diogu, gure ustez, Osasun Txartel Indibiduala bizilekua egiaztatzeko modu bat ere izan daitekeela, eta, ildo horretan, **1.a) apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

“1. Eskabidearekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

*a) Nortasuna egiaztatzeko, Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea, Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia, bizileku-baimena edo antzekoa edo **Osasun Txartel Indibiduala**, eta haien ardurapean dauden senideak edo harreran hartutako adingabeak, halakoen jabe izateko betebeharra badute...”*

Era berean, uste dugu zuzenagoa dela, adierazitako testuan, "egoitza-baimena" aipatzea, "egoitza-baimena" aipatzea baino, eta, beraz, esamolde hori aldatzea gomendatzen dugu.

Eta kontuan hartuta Euskadin bizi diren pertsona guztiak ez daudela erroldatuta, artikuluko horretako **1.d) apartatuan** letra lodiz nabarmendutakoa **gehitzea** gomendatzen dugu:

“d) Erroldatuta egonez gero, eskatzailearen erroldatze-ziurtagiria erroldatua egotekotan, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda eta erroldatze-data barne, laguntza-eskaera aurkeztu baino hilabete lehenago emana, beranduenez. Aurkeztutako errolda-ziurtagirian erasotzailea edo ustezko erasotzailea ere agertzen bada, ondorio horietarako nahikoa izango da pertsona horri baja emateko eskaera aurkeztea, oraindik ebatzi ez bada ere.”

V.- ONDORIOAK

Euskadiko EGABek egokitzen du *“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duen dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta organo honek aldatzeko egin dituen oharrak kontuan hartuta.

Bilbon, 2025eko ekainaren 27an

OE Presidentea

Idazkari Nagusia

Javier Muñecas Herreras

Izaskun Astondoa Sarria